Zazpigurutze 2, behea
31740 **DONEZTEBE** (Nafarroa)
Tfnoa: 948. 45 17 46

Malerrekako Mankomunitatea

IFZ: P3147827D

SINATZAILEA
SECRETARIO/INTERVENTOR
JON ETXAGÜE GOIA
2025/12/01

SINATZAILEA
PRESIDENTE
JON TELLETXEA JUANENEA
2025/12/01

**MALERREKAKO ZERBITZU OROKORREN MANKOMUNITATEKO ASAMBLADAK 2025EKO IRAILAREN 9AN EGINDAKO BILERAREN AKTA.**

**Organoa:** Udalbatza.
**Bilkura mota:** Ohikoa.
**Deialdia:** Lehenengoa.
**Eguna:** 2025.09.09.
**Ordua:** Arratsaldeko 19:00ean.
**Tokia:** Malerrekako Zerbitzuen Mankomunitatearen egoitzan.

**Bertaratuak:**

**- LEHENDAKARIA:**

**- LEHENDAKARIORDEA:**

- Amets Inda Gorriaran and. (Sunbilla).

**- ORDEZKARIAK:**

- Maria Aranzazu Arregui Alberro and. (Doneztebe/Santesteban).
- Iasone Fresneda Echeverria and. (Doneztebe/Santesteban).
- Nerea Zazpe Braña and. (Doneztebe/Santesteban).
- Nagore Escudero Baleztena and. (Eratsun).
- Maria Elizondo Etxegia and. (Urroz).
- Jaione Zabalo Juantorena and. (Ezkurra).
- Eva Martin Ibarra and. (Elgorriaga).
- Rakel Ariztegi Ariztia and. (Oitz).
- Irune Aguirre Maritorena and. (Sunbilla).
- Natalia Rekarte Oteiza and. (Donamaria).
- Iñigo Zubeldia Telletxea jna. (Saldias).

**Bertaratu ez direnak:**

- Jon Telletxea Juanenea jna. (Beintza-Labaien).
- Fernando Gallego Galindo jna. (Doneztebe/Santesteban).
- Andrés Echenique Iriarte jna. (Bertizarana).
- José Antonio Jáuregui Juantorena jna. (Bertizarana).
- Francisco Javier Bereau Miquelarena jna. (Ituren).
- Maria Larretxea Etxeberria and. (Ituren).
- Ernesto Dominguez Olea jna. (Zubieta).

**Idazkaria:** Jon Etxague Goia jn.

***ACTA DE LA SESIÓN CELEBRADA POR LA ASAMBLEA DE LA MANCOMUNIDAD DE SERVICIOS GENERALES DE MALERREKA EL DÍA 9 DE SEPTIEMBRE DE 2025.***

***Órgano:*** *Asamblea.*
***Sesión:*** *Ordinaria.*
***Convocatoria****: Primera.*
***Día:*** *09.09.2025.*
***Hora:*** *19:00 horas de la tarde.*
***Lugar****: Sede de la Mancomunidad de Servicios de Malerreka.*

***Asistentes:***

***- PRESIDENTE:***

***- VICEPRESIDENTE:***

*- Dña. Amets Inda Gorriaran (Sunbilla).*

***- REPRESENTANTES:***

*- Dña. Maria Aranzazu Arregui Alberro (Doneztebe/Santesteban).*
*- Dña. Iasone Fresneda Echeverria (Doneztebe/Santesteban).*
*- Dña. Nerea Zazpe Braña (Doneztebe/Santesteban).*
*- Dña. Nagore Escudero Baleztena (Eratsun).*
*- Dña. Maria Elizondo Etxegia (Urrotz).*
*- Dña. Jaione Zabalo Juantorena (Ezkurra).*
*- Dña. Eva Martin Ibarra (Elgorriaga).*
*- Dña. Raquel Ariztegi Ariztia (Oitz).*
*- Dña. Irune Aguirre Maritorena (Sunbilla).*
*- Dña. Natalia Rekarte Oteiza (Donamaria).*
*- D. Iñigo Zubeldia Telletxea (Saldias).*

***No asisten:***

*- D. Jon Telletxea Juanenea (Beintza-Labaien).*
*- D. Fernando Gallego Galindo (Doneztebe/Santesteban).*
*- D. Andrés Echenique Iriarte (Bertizarana).*
*- D. José Antonio Jáuregui Juantorena (Bertizarana).*
*- Dña. Maria Larretxea Etxeberria (Ituren).*
*- D. Francisco Javier Bereau Miquelarena (Ituren).*
*- D. Ernesto Dominguez Olea (Zubieta).*

***Secretario:*** *D. Jon Etxague Goia.*

SINATZAILEA
SECRETARIO/INTERVENTOR
JON ETXAGÜE GOIA
2025/12/01

SINATZAILEA
PRESIDENTE
JON TELLETXEA JUANENEA
2025/12/01

**Aztergaiak:**

1. Aurreko aktaren onarpena.
2. Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateko jubiloteka zerbitzuaren Kontratuaren esleipena.
3. "Nafarroako iparraldeko (Doneztebe/Santesteban) biohondakinen konpostajerako planta" proiektua behin betiko onestea.
4. Berdintasun Zerbitzuaren inplantazioaren inguruko informazioa.
5. Lehendakariaren ebazpenak.
6. Eskaerak eta galderak.

***Asuntos:***

1. *Aprobación del acta anterior.*
2. *Adjudicación del Contrato del servicio de jubiloteca de la Mancomunidad de Servicios Generales de Malerreka.*
3. *Aprobación definitiva del proyecto "Planta de compostaje de biorresiduos en la zona norte de Navarra (Doneztebe/Santesteban)".*
4. *Información sobre la implantación del Servicio de Igualdad.*
5. *Resoluciones del Presidente.*
6. *Ruegos y preguntas.*

**1. AURREKO AKTA ONARTZEA.**

2025eko uztailaren 2an egindako bileraren akta ikusirik, aho batez, ONARTU DUTE.

***1. APROBACIÓN DEL ACTA ANTERIOR.***

*Visto el acta de la sesión celebrada el día 2 de julio de 2025, por unanimidad, SE APRUEBA.*

**2. MALERREKAKO ZERBITZU OROKORREN MANKOMUNITATEKO JUBILOTEKA ZERBITZUAREN KONTRATUAREN ESLEIPENA.**

Malerrekako Mankomunitatearen Batzarrak, 2025eko uztailaren 2an egin bilkuran, erabaki zuen Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatearen eremuan adinekoentzako jubiloteka zerbitzuaren Kontratua prozedura irekiaren bidez esleitzeko prozedura hastea eta kontratazio espedientea onartzea.

Esleipen-prozedura Plegu Arautzailean ezarritako jarraibideen arabera garatu da, eta proposamen tekniko eta ekonomikoak aipatutako baldintzetan aurreikusitako moduan baloratu dira, bai eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 2/1990 Foru Legean eta Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean ere. Hona hemen lortutako puntuazioak:

| Lizitatzailea | Proposamen teknikoa | Irizpide sozialak | Oferta ekonomikoa | Puntuazioa guztira |
|---|---|---|---|---|
| TRANSFORMA CUIDAMOS PERSONAS SL | 38,50 p | 10,00 p | 0,00 p | 48,50 p |
| NASCOR FORMACIÓN | 20,50 p | Ez da baloratu, ez baita lortu proposamen teknikoan eskatzen den gutxieneko puntuazioa. | | |

Kontratazio Mahaiak esleipen proposamena egin du *TRANSFORMA CUIDAMOS PERSONAS SL* lizitatzailearen alde, honek aurkezturiko proposamenarekin bat eta hau kontsideratuz

***2. ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO DEL SERVICIO DE JUBILOTECA DE LA MANCOMUNIDAD DE SERVICIOS GENERALES DE MALERREKA.***

*En la sesión de la Asamblea de la Mancomunidad de Malerreka celebrado el 2 de julio de 2025, se acordó aprobar el expediente de contratación, e iniciar el procedimiento de adjudicación, mediante procedimiento abierto, del Contrato del servicio de jubiloteca para mayores en el ámbito de la Mancomunidad de Servicios de Malerreka.*

*El procedimiento de adjudicación se ha desarrollado conforme a las pautas establecidas en el Pliego Regulador, procediendo a la valoración de las propuestas técnicas y económicas del modo previsto en el mencionado condicionado, así como en la Ley Foral 2/1990 de la Administración Local de Navarra, y la Ley Foral 2/2018, de 13 de abril, de Contratos Públicos, siendo las puntuaciones obtenidas las señaladas a continuación:*

| *Licitador* | *Propuesta técnica* | *Criterios sociales* | *Oferta económica* | *Puntuación total* |
|---|---|---|---|---|
| *TRANSFORMA CUIDAMOS PERSONAS SL* | *38,50 p* | *10,00 p* | *0,00 p* | *48,50 p* |
| *NASCOR FORMACIÓN* | *20,50 p* | No se valora por no haber obtenido en la propuesta técnica la puntuación mínima exigida | | |

*Se ha efectuado propuesta de adjudicación por la Mesa de Contratación, proponiendo la adjudicación del contrato a favor de TRANSFORMA CUIDAMOS*

SINATZAILEA
SECRETARIO/INTERVENTOR
JON ETXAGÜE GOIA
2025/12/01
SINATZAILEA
PRESIDENTE
JON TELLETXEA JUANENEA
2025/12/01

proposamenik onuragarriena Plegu Arautzailean aurreikusitako irizpideak aplikatuz.

*PERSONAS SL, de conformidad a la oferta presentada por esta, al considerarse la más ventajosa en aplicación de los criterios de valoración incluidos en el Pliego Regulador.*

Lizitatzaileak kontratatziorako eskatzen den kaudimen ekonomiko eta teknikoa duela eta Plegu Arautzailean eskatzen diren gainerako baldintzak betetzen dituela egiaztatu da.

*Ha quedado acreditado que la licitadora cuenta con la solvencia económica y técnica exigida para la contratación y cumple el resto de las condiciones exigidas en el Pliego Regulador.*

Horiek horrela, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatearen Batzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

*Visto lo cual, la Asamblea de la Mancomunidad de Servicios de Malerreka, por unanimidad, HA ACORDADO:*

1.- Malerrekako Zerbitzuen Mankomunitatearen esparruan adinekoentzako jubiloteka zerbitzuaren Kontratua *TRANSFORMA CUIDAMOS PERSONAS SL*ri esleitzea, 30.430,0 eurotan, BEZ kanpo (34 euro orduko, BEZ gabe), eta Plegu Arautzailean jarririko baldintzetan.

*1.- Adjudicar el Contrato del servicio de jubiloteca para mayores en el ámbito de la Mancomunidad de Servicios de Malerreka a TRANSFORMA CUIDAMOS PERSONAS SL, en la cantidad de 30.430,0 euros, IVA excluído (34 euros/hora, IVA excluido), y en los términos establecidos en el Pliego Regulador.*

2.- Akordio hau prozesuan parte hartu duten lizitatzaileei jakinaraztea, ohartaraziz esleipenaren eraginkortasuna etenda geldituko dela 10 egun naturaleko epean esleipenaren jakinarazpena igortzen den egunetik hasita, Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 101. artikuluak dioen bezala.

*2.- Proceder a la notificación de la adjudicación acordada a los participantes en la licitación, advirtiéndoles de que la eficacia de la adjudicación quedará suspendida durante el plazo de 10 días naturales contados desde la fecha de remisión de la notificación de la adjudicación, tal como especifica el artículo 101 de la Ley Foral 2/2018, de 13 de abril, de Contratos Públicos.*

3.- Lehendakariari ahalmena ematea, esleipenaren etendura epearen bukaeratik hasita hamabost eguneko epean, esleitutako kontratua *TRANSFORMA CUIDAMOS PERSONAS SL*rekin formalizatzeko, honek kontratuaren behin betiko bermeari eta erantzukizun zibileko aseguruari buruz Plegu Arautzailean aurreikusitako baldintzak betetzen dituela egiaztatu ondoren (Plegu Arautzilearen 16, 17 eta 18. klausulak).

*3.- Facultar a la Presidencia para que en el plazo máximo de quince días naturales contados desde la terminación del plazo de suspensión de la adjudicación, proceda a formalizar con TRANSFORMA CUIDAMOS PERSONAS SL el contrato adjudicado, previa acreditación por ésta del cumplimiento de los extremos previstos en el Pliego Regulador en lo referente a la garantía definitiva del contrato y el seguro de responsabilidad civil (cláusulas 16, 17 y 18 del Pliego Regulador).*

**3. “NAFARROAKO IPARRALDEKO (DONEZTEBE/SANTESTEBAN) BIOHONDAKINEN KONPOSTAJERAKO PLANTA” PROIEKTUA BEHIN BETIKO ONESTEA.**

***3. APROBACIÓN DEFINITIVA DEL PROYECTO “PLANTA DE COMPOSTAJE DE BIORRESIDUOS EN LA ZONA NORTE DE NAVARRA (DONEZTEBE/SANTESTEBAN)”.***

Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateko Batzar Orokorrak, 2024ko urriaren 31n egin bilkuran, hasiera batean onetsi zuen aipatutako proiektua, ukitutako ondasun eta eskubideen zerrendarekin batera, eta jendaurrean jarri zuen hamabost egunez.

*La Asamblea General de la Mancomunidad de Servicios Generales de Malerreka, en sesión celebrada el 31 de octubre de 2024, aprobó inicialmente el proyecto de referencia, junto con su relación de bienes y derechos afectados y lo sometió a información pública por un plazo de quince días.*

Erabaki hori, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 18. artikuluak adierazten duen moduan, 2024ko azaroaren 21eko 236 zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 2024ko azaroaren 21eko Diario de

*Dicho acuerdo, en la forma a que se refiere el artículo 18 de la Ley de Expropiación Forzosa, se publicó en el Boletín Oficial de Navarra número 236, de 21 de noviembre de 2024, en el periódico Diario de Noticias*

SINATZAILEA
SECRETARIO/INTERVENTOR
JON ETXAGÜE GOIA
2025/12/01

SINATZAILEA
PRESIDENTE
JON TELLETXEA JUANENEA
2025/12/01

Noticias egunkarian, Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateko eta Doneztebeko Udaleko iragarki-oholetan argitaratu zen. Halaber, interesdunei zuzenean jakinarazi zitzaien, eta hamabost eguneko epea eman zitzaien, detektatu ziren akatsak zuzentzeko behar beste datu idatziz aurkez zitzaten, edo ondasunak eta eskubideak atzematearen edo erabiltzearen aurka azaldu zitezen, formaren edo funtsaren arrazoiengatik, eta arrazoi horiek behar bezala arrazoituta egon behar zuten.

*de 21 de noviembre de 2024, en los tablones de anuncios de la Mancomunidad de Servicios Generales de Malerreka y del Ayuntamiento de Doneztebe/Santesteban y se notificó personalmente a los interesados concediéndoles un plazo de quince días para que pudieran aportar por escrito cuantos datos permitieran la rectificación de los posibles errores que se hubieran detectado u oponerse a la ocupación o disposición de los bienes y derechos por motivos de forma o fondo, que debieran fundamentar motivadamente.*

Epe hori igarota, alegazio hau jaso da. Jarraian alegazioari erantzuna eman zitzaion:

*Transcurrido dicho plazo se ha recibido la siguiente alegación, que a continuación se contesta:*

1 .- Jesús Maria Zabala Gonzálezek, bere jabetzako finkak ukitu dituzten aurreko desjabetze espedienteei buruzko hainbat gogoeta egin ondoren, 2024ko urriaren 31ko erabakia atzera botatzeko eskatzen du, lege, teknika, ekonomia eta aukera aldetik arrazoigabetzat jotzen baitu proiekturako ukituak izan diren 199, 811, 810 eta 232 finkak aukeratzea, eta Partzuergoari jakinarazten dio finka horiek ez diren beste kokaleku bat proposatu beharko duela.

*1 .- Jesús Maria Zabala González, tras realizar diversas consideraciones en relación a anteriores expedientes expropiatorios que han afectado a las fincas de su propiedad, solicita se revoque el acuerdo de 31 de octubre de 2024, por considerar injustificada, desde el punto de vista legal, técnico, económico y de oportunidad, la elección de las fincas 199, 811, 810 y 232, afectadas para el proyecto y se comunique al Consorcio que deberá plantear una ubicación distinta de la de las citadas fincas.*

Erantzuna:

*Respuesta:*

Alegazioa ez da onartu, justifikatuta dagoelako kokapena hirigintza eta lurralde aldetik egokia dela, Nafarroako Hiri Hondakinak Tratatzeko Partzuergoaren txostenean garatzen den bezala, eta txosten hori alegatzaileari igorriko zaio.

*Se desestima la alegación, por estar justificada la idoneidad urbanística y territorial de la ubicación tal y como se desarrolla en el informe del Consorcio para el tratamiento de Residuos Urbanos de Navarra, que será remitido al alegante.*

Beraz, honako hau ERABAKI DA:

*Por lo que se ACUERDA:*

1.- Behin betikoz onartzea “Nafarroako iparraldeko (Doneztebe/Santesteban) biohondakinen konpostajerako planta” proiektua bai eta ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda ere. Onespen horretan herri-onuraren eta okupatu beharraren deklarazioa inplizituki geratzen da, Nahitaezko Desjabetzari buruzko Legearen 10. artikuluan eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 215.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

*1.- Aprobar definitivamente el proyecto Planta de compostaje de biorresiduos en la zona norte de Navarra (Doneztebe/Santesteban), así como la relación de bienes y derechos afectados, quedando implícita la declaración de utilidad pública y necesidad de ocupación en dicha aprobación, de conformidad con lo establecido en el artículo 10 de la Ley de Expropiación Forzosa y en el artículo 215.2 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio de la Administración Local de Navarra.*

2.- Erabaki hau Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateko eta Doneztebeko Udaleko iragarki-oholetan eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta akordioaren laburpen bat argitaratzea Nafarroako Foru Komunitateko egunkaririk zabalduenetako batean.

*2.- Publicar el presente acuerdo en los tablones de anuncios de la Mancomunidad de Servicios Generales de Malerreka y del Ayuntamiento de Doneztebe/Santesteban, en el Boletín Oficial de Navarra y, un resumen del mismo, en uno de los periódicos de mayor difusión de la Comunidad Foral de Navarra.*

3.- Erabaki hau Doneztebeko Udalari eta ukitutako titularrei jakinaraztea, eta azaltzea erabakiaren aurka errekurtso hauek jar ditzaketela interesdunek, aldez

*3.- Notificar este acuerdo al Ayuntamiento de Doneztebe/Santesteban y a los titulares afectados, significándoles que contra el mismo, los interesados*

SINATZAILEA
SECRETARIO/INTERVENTOR
JON ETXAGÜE GOIA
2025/12/01

SINATZAILEA
PRESIDENTE
JON TELLETXEA JUANENEA
2025/12/01

aurretik, aukeran, baldin eta herri administrazio ez badira: berraztertzeko errekurtsoa Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateari; gora jotzeko errekurtsoa Nafarroako Administrazio Auzitegiari, hilabeteko epean, erabaki hau jakinarazi eta biharamunetik hasita, eta administrazioarekiko auzierrekurtsoa Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari, bi hilabeteko epean, erabaki hau jakinarazi eta biharamunetik hasita. Administrazio publikoek ere azken errekurtso hori jar dezakete edo, bestela ere, Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateari aldez aurretiko errekerimendua egin ahal izango diote, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan ezarritako moduan eta epean (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legea).

*que no sean Administraciones Públicas podrán interponer previa y potestativamente bien recurso de reposición ante la Mancomunidad de Servicios Generales de Malerreka o bien recurso de alzada ante el Tribunal Administrativo de Navarra en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de la notificación de este acuerdo; o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de Navarra, en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al de la notificación de este acuerdo, pudiendo las Administraciones Públicas interponer este último recurso o efectuar requerimiento previo ante la Mancomunidad de Servicios Generales de Malerreka en la forma y plazo determinados en el artículo 44 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.*

## 4. BERDINTASUN ZERBITZUAREN INPLANTAZIOAREN INGURUAN.

Idazkariak jakinarazi du berdintasun-agenteak aldi baterako kontratatzeko izangaien zerrenda osatzeko hautaketa-prozesua amaitu dela, eta joan den astelehenean, irailaren 8an, berdintasun-agente baten aldi baterako kontratazioa formalizatu zela.

Gaur egun, Ministerioaren berdintasunaren arloko laguntzen justifikazioaren kudeaketan zentratuta dago agente berria. Hala ere, datozen asteetan bere gain hartuko du zerbitzua Mankomunitatean ezarri eta martxan jartzea. Horretarako, beharrezkoa izango da, besteak beste, mankomunitatearen barne egitura berrantolatzea.

## *4. INFORMACIÓN SOBRE LA IMPLANTACION DEL SERVICIO DE IGUALDAD.*

*El Secretario informa de que ha finalizado el proceso de selección para la constitución de una lista de aspirantes a la contratación temporal de agentes de igualdad, y que el pasado lunes, 8 de septiembre, se formalizó la contratación temporal de una agente de igualdad.*

*En la actualidad, la nueva agente está centrada en la gestión de la justificación de las ayudas en materia de igualdad del Ministerio. No obstante, en las próximas semanas asumirá la implantación y puesta en marcha del servicio en la Mancomunidad. Para ello, será necesario, entre otras cuestiones, reorganizar la estructura interna de la Mancomunidad.*

## 5. LEHENDAKARIAREN EBAZPENAK.

Lehendakariaren ebazpen hauen berri eman da:

- 2025/07/8ko 9. Dekretua: ALDI BATERAKO KONTRATAZIORAKO IZANGAI ZERRENDA BAT, BERDINTASUNERAKO AGENTEAREN LANPOSTUA BETETZEKO. ONARTU ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDAREN ONESPENA.
- 2025/08/8ko 10. Dekretua: GIZARTE LARRIALDIETARAKO DIRU-LAGUNTZEN ORDAINKETA.
- 2025/08/18ko 11. Dekretua: BERDINTASUN AGENTEAREN LAN POSTUA BETETZEKO ALDI BATERAKO KONTRATAZIOETARAKO IZANGAI

## *5. RESOLUCIONES DEL PRESIDENTE.*

*Se da cuenta de las resoluciones del Presidente:*

- *Decreto nº 9 de 8/07/2025: LISTA DE ASPIRANTES A LA CONTRATACIÓN TEMPORAL PARA LA COBERTURA DEL PUESTO DE TRABAJO DE AGENTE DE IGUALDAD. APROBACIÓN DE LA RELACIÓN DEFINITIVA DE ADMITIDOS Y EXCLUIDOS.*
- *Decreto nº 10 de 8/08/2025: PAGO DE LAS AYUDAS DE EMERGENCIA SOCIAL.*
- *Decreto nº 11 de 18/08/2025: APROBACIÓN DE LAS LISTAS DE PERSONAS ASPIRANTES A LA CONTRATACIÓN TEMPORAL PARA LA COBERTURA DEL*

SINATZAILEA
SECRETARIO/INTERVENTOR
JON ETXAGÜE GOIA
2025/12/01

SINATZAILEA
PRESIDENTE
JON TELLETXEA JUANENEA
2025/12/01

ZERRENDAREN ONARPENA.

*PUESTO DE TRABAJO DE AGENTE DE IGUALDAD.*

- 2025/08/29ko 12. Dekretua: MAITE ELIZONDO SAN MARTIN KONTRATATZEA, MALERREKAKO ZERBITZU OROKORREN MANKOMUNITATEKO BERDINTASUN AGENTE GISA, BEHIN-BEHINEAN ETA ALDI BATERAKO BERDINTASUN AGENTEAREN LANPOSTUA BETETZEKO.

- *Decreto nº 12 de 29/08/2025: CONTRATACIÓN DE MAITE ELIZONDO SAN MARTIN EN CALIDAD DE AGENTE DE IGUALDAD DE LA MANCOMUNIDAD DE SERVICIOS GENERALES DE MALERREKA PARA CUBRIR EN INTERINIDAD Y CON CARÁCTER TEMPORAL EL PUESTO DE TRABAJO DE AGENTE DE IGUALDAD.*

**6. ESKAERAK ETA GALDERAK.**

- Natalia Rekartek adierazi du aurreko bileretan jakinarazi zela aldizkako bilerak egingo zirela Mankomunitateko hondakin zerbitzuaren berri emateko. Gogorarazi du bilera horietan hainbat gai jorratzea erabaki zela, hala nola, martxan dauden lanak, erronkak eta zerbitzuaren helburuak, baita bilketari buruzko datuak eta emaitzen adierazleak ere. Adierazi du bilera horiek ez direla egiten ari, eta eskatu du Mankomunitateko Hondakin Batzordearen bilera bat deitzeko gai horiek aztertzeko.

  Arantxa Arregik gaineratu du ekitaldi jasangarriei buruz ere hitz egin beharko litzatekeela, araudi berriak ezartzen dituen betebeharrei buruzko nolabaiteko ziurgabetasuna baitago.

- Natalia Rekartek informazioa eskatu du uztaileko Batzarrean ehun-hondakinen (arropa) frakzioaren bilketaren inguruan jorratutako gaiari buruz.

  Idazkariak Lagunbide S.L. enpresak aurkeztutako proposamenaren, Mankomunitateko zerbitzu teknikoek dituzten datuen eta uztailaren 2ko Batzarrean hartutako erabakiaren berri eman du. Akordio horretan zehazten da ehun-frakzioaren bilketa eta garraioa bitarteko propioekin egingo direla, eta behin-behinean, eta, horretarako behar diren baliabideak jartzen diren bitartean, Lagunbide SL kontratatuko dela, zerbitzua aldi baterako emateko.

  Natalia Rekartek eskatu du gaia arretaz aztertzeko zerbitzua emateko moduan aldaketak egin aurretik, eta, nolanahi ere, zerbitzua kalitate maila egokiarekin emango dela bermatzeko.

***6. RUEGOS Y PREGUNTAS.***

- *Natalia Rekarte manifiesta que en reuniones anteriores se informó de que se celebrarían encuentros periódicos para dar cuenta del servicio de residuos de la Mancomunidad. Recuerda que en dichas reuniones se acordó abordar asuntos como los trabajos en curso, los retos y objetivos del servicio, así como los datos de recogida e indicadores de resultados. Señala que estas reuniones no se están llevando a cabo y solicita que se convoque una sesión de la Comisión de Residuos de la Mancomunidad para tratar dichos temas.*

  *Arantxa Arregi añade que se debería tratar también la cuestión de los eventos sostenibles dado que en su opinión existe cierta incertidumbre sobre los deberes que la nueva normativa impone.*

- *Natalia Rekarte solicita información sobre la cuestión tratada en la sesión de la Asamblea de julio en relación con la recogida de la fracción de residuos textiles (ropa).*

  *El secretario informa sobre la propuesta presentada por la empresa Lagunbide S.L., los datos de los que disponen los servicios técnicos de la Mancomunidad y el acuerdo adoptado en la Asamblea del 2 de julio. En dicho acuerdo se establece que la recogida y el transporte de la fracción textil se realizarán con medios propios y que de forma interina, mientras se habilitan los recursos necesarios para ello, se contratará a Lagunbide S.L. para la prestación temporal del servicio.*

  *Natalia Rekarte solicita que se analice con detenimiento la cuestión antes de introducir cambios en el modo de prestación del servicio y que, en todo caso, se garantice su prestación con los niveles adecuados de calidad.*

SINATZAILEA
SECRETARIO/INTERVENTOR
JON ETXAGÜE GOIA
2025/12/01

SINATZAILEA
PRESIDENTE
JON TELLETXEA JUANENEA
2025/12/01

Bertzerik gabe, arratsaldeko 19:40ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

LEHENDAKARIAK,
Jon Telletxea Juanenea jn.

*Sin más asuntos que tratar, siendo las 19:40 horas de la noche, el presidente da por finalizada la sesión, de la que se levanta la presente acta de la que yo, como Secretario, doy fe.*

IDAZKARIAK,
Jon Etxague Goia jn.


Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan https://sedeelectronica.malerreka.eus/